

**NOLA JOKATU AGENTE BIOLOGIKO KUTSAGARRIREN BAT
(Antrax barne) EDUKI LEZAKEELA SUSMATZEN DEN GUTUN
EDO PAKETEREN BAT JASOTZEAN**

Gaur egun, **geure ingurunean, gutun edo pakete kutsaturen bat jasotzeko probabilitatea oso baxua da**. Halere, agente biologiko kutsagarriak eduki litzakeela susmatuz gero, honako gomendio hauen arabera jokatu behar da:

1. Ez ireki, manipulatu edo hustu gutunazal edo pakete susmagarria.
2. Gutunazala edo paketea zabaldu bada, plastikozko zorro batean sartu, edukia barreiatu edo isuri ez dadin. Beste inork ukitzea eragotzi.
3. Zorro edo ontzi egokirik eskura eduki ezean, estal ezazu paperontziarekin, arropa, oihal edo paperen batzuekin, eta ez ukitu.
4. Irten zaitetz paketea dagoen gelatik, bertako leihoak itxi ondoren, itzal ezazu aire girotua, baldin badago eta itxi atea. Ez utzi inori paketea dagoen gelan edo tokian sartzen.
5. Deitu 112 zk.ra (Larrialdietako Telefonoa).
6. Egizu ZERRENDA bat gutun edo pakete susmagarria aurkitu edo zabaldu den unean gelan edo gune horretan zeuden pertsona guztien izenekin.
7. Itxaron ezazu, 112 zk.ren bitartez, egoeraz arduratuko den pertsonal kualifikatua bidaltzen duten arte.
8. Garbi itzazu eskuak ur eta xaboiak eta ez ukitu eskuez aurpegia, produktua heda ez dadin.
9. Dutxa zaitetz ahalik azkarren ur eta xaboiak, baina ez erabili larruazalerako desinfektagarririk.
10. Ahalik azkarren, sar itzazu zeure arropak ontzi edo poltsa egoki batean eta itxaron zer egin esan diezazuten arte.